

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EUSKADIKO  
AURREKONTU OROKORRAK

2004



**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN 2004 URTEKO  
AURREKONTU OROKORREN  
LEGE-AURREPROIEKTUA**

**Vitoria-Gasteiz, 2003ko urriaren 21a**

**EUSKADIKO HAZKUNDE ETA EKONOMIAREN  
LEHIAKORTASUNARENTZAT, ETA EUSKAL GIZARTEAREN  
SOLIDARITATEA ETA KOHESIOARENTZAT EKARPENA**

***Jaurlaritzaren Batzordeak gaurko bileran 2004 ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretarako lege-aurreproiektua onartu du, datozen egunetan Euskal Legebiltzarrera igorriko dena.***

**1.- SARRERA**

**1.1. Euskadiko ekonomiaren koiantura.**

Aurreko urteetan nazioarteko ekonomiaren agertokian jardueraren moteltze seinalea nabaria izan da, eta 2001 eta 2002 ekitaldietan euskal ekonomiaren eboluzioan sumatu den ekonomiaren kontrakzioa izan da.

Hala eta guztiz ere, aipatutako ekitaldietan gure ekonomiak, inguruko ekonomi indartsuenak, Alemania, Frantzia edo Italiakoarena baino jarduera positiboagoa azaldu zuen.

Zentzu honetan, Euskadiko ekonomiaren eboluzioaren azken balantzearen emaitzak bereziki azpimarratzekoak dira, aipatutako nazioarteko egoerak gure ekonomia-egituraren ezaugarrientzat kaltegarriagoa dela kontutan hartzen badugu, hau da, gure ekonomiak duen kanpoko merkatuenganako irekiera eta industriaren pisu erlatiboagatik, ekipamendu-ondasunaren sektorearenak bereziki.

Koiuntura honen aurrean, eta nazioarteko erakunde nagusien estimazioen arabera, eta baita Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak elaboratutako aurreikuspenen arabera ere, ez dira berehalako etorkizunerako euskal ekonomian aldaketa esanguratsuak aurreikusten, 2003 urteko ekitaldiko eboluzioaren aurreikuspenaren arabera eta 2004 ekitaldikoaren arabera, ekonomiaren hazkundearen erritmo moderatua nahiz eta egonkorra mantenduko baita, Europar Batasunaren batezbestekoaren eta ekonomia nagusien gaineko hazkundera lortuz.

Puntu honetan, gogoratzekoa da, dena den, igargarri den nazioarteko ekonomiaren susperraldia Estatu Batuetako ekonomiaren berrindartzean oinarrituko dela, batez ere, Europar Batasunaren ekonomia-jardueraren adierazleek esnatu gabeko seinalea adierazten baitute, eta honek seguruenik Europako ekonomiaren berreskuratzearen atzerapenean eragingo du.

Halaber, bazter ezinezko datua da datorren maiatzean Europar Batasunean hamar estatu kide berri sartuko direla, eta dudarik gabe oraindik zailtasunez balioztatu daitezkeen ondorio ekonomikoak izango dituela.

Orain arte esandakoa gogoan hartuz, inguruko nazioarteko eboluzioa funtsezkoa da euskal ekonomiaren aurreikuspena egiterakoan. Dena den, gure Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundearen zenbatespena 2003 ekitaldirako %2,2an kokatzen da.

Aurreikuspen honetatik aurrera, eta erakunde eta institutu ezberdinek -Nazioarteko Moneta Funtsa, Europar Batzordeak, e.a.-, aipatzen duten mundu-ekonomiaren jarduera-erritmoaren susperraldia egiaztatzen den neurrian, Euskadiko BPGaren hazkundera 2004 ekitaldirako %2,6an kokatzen da.

Aurreko bi ekitaldietan bezala, aipatutako ekonomia-hazkunde moderatuak, egonkorra era berean, Euskadin enpleguaren sorrerarekin jarraitzea ahalbidetuko du, nahiz eta sorrera estutuagoa izan, eta ondorioz, baita gure langabezi tasa jaistera ere, 2003 ekitaldian Biztanleria Aktiboaren %8an, eta 2004 ekitaldian Biztanleria Aktiboaren %7,9an, dudarik gabe zehaztutako langabezi tasa Europar Batasunaren batezbestekoarekin parekatua (2003ko abuztura arte %8koa eta Euro Esparruarena %8,8koa, EUROSTATen arabera. Euskadiko langabezi tasa %8,1koa dugu, EUSTATEk elaboratutako inkesten datuen arabera).

Azkenik, inflazioari dagokionez, honen hazkundearen tasaren jaitsiera aurreikusten da 2003 ekitaldian zehar izan duen joeraren arabera (%3,5ekoa lehenengo hiruhilabetean eta %2,6koa bigarren hiruhilabetean, iraileko urtetik urterako tasa 2,5ekoa izan genuelarik), eta Euroaren sarreraren ondorioz agertutako inflazioaren arian-arian desagertzen doan goranzko joera, eta dolarraren aurrean euroak lortu duen balio-igoerari esker.

Dena den, BPGaren deflaktatzailearen zifren aurrean (3,9koa eta %3koa, 2003 eta 2004 urteetako hurrenez hurren), Europako Banku Zentralak gomendatzen duenaren gainetik kokatzen garela ohartarazi behar da, %2a ez gainditzea eta Europar Batasunaren batezbesteko Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) ez gainditzearena eta aurtengo bigarren hiruhilabetean %1,8an kokatzen dena.

Deskribatutako agertokia kontutan hartuta, Jaurlaritzak, 2004 ekitaldirako duen Aurrekontu Orokorren proiektuaren bitartez ekarpen berri bat egin nahi dio hazkundearen eta Euskadiko ekonomiaren lehiakortasunaren sendotzeari, eta euskal gizartearen solidaritate eta giza-kohesioari ere bai.

Horretarako, gaur Jaurlaritzaren Batzordeak onartu duen Aurrekontu Orokorren Aurreproiektuak, alde batetik, inbertsio publikoaren igoera zehazten du, azpiegitura alorrean eta Informazio eta Ezagutzaren Gizartera moldatzeko alorretan bereziki; eta bestetik, gastuaren birbanatzearen esfortzua mantentzen du, Euskadin dagoen giza-integrazio maila altua bermatzearen.

Oraingo ekonomiaren kontrakzio-zikloaren aurrean, beraz, gastu sozialaren esparruan egiten ari garen esfortzua mantentzen dugu, era berean Administrazio Publikoak gure ekonomia-hazkundearen erritmo egonkorrari eutsiz edota ahal den neurrian hazkunde erritmoari bultzada emanez.

## 1.2. 2004ko ekitaldiko Aurrekontuak prestatzeko Jarraibide Ekonomikoak

Aipatutako guztiari eutsiz, 2004ko ekitaldiko Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren aurreproiektuak hurrengo ardatz edo jarraibide ekonomikoak izan ditu:

1. Aurrekontu-egonkortasuna eta oreka mantentzea. Honela, aurreikusitako gastu ez-finantzarioen bolumena, diru-sarrera ez-finantzarioen mailarekin zeharo bat dator.
2. Inbertsio publikoaren gehikuntza. Aurrekontu-zuzkidurak onartuko dira azpiegitura, industria, gizarte, kultura eta ekonomiaren sustapen eta garapenerako aurreikusita dauden egitasmoak bultzatzeko, eta lurralde eta giza-kohesiorako ditugun politikak garatzeko.
3. Gastu publikoaren zehaztapena, Informazio Gizartera moldatzeko eta "bat egite teknologikoa" lortzeko, Euskadi Informazio Gizartean Planean eta 2001-2004ko Zientzia eta Teknologia Planean jasotako aurreikuspenak garatzearren.
4. Garapen jasangarriaren printzipioa betetzea, honela era berean hazkunde ekonomikoa eta ingurugiroarekiko errespetua bateratu daitezten. Honetarako, Jaurlaritzak 2002-2020 eperako Euskadiko Garapen Jasangarriaren Ingurugiroari buruzko Estrategiak zehazten dituen neurriak betetzen jarraituko du.
5. Gizarte-kohesio eta Gizarteratzearen hobekuntza, izaera unibertsaleko oinarrizko zerbitzuen beharrezko zuzkidurak bermatuz eta sendotuz, eta txertaketa sozialerako ezartzen diren neurri zehatzen bidez.
6. Euskadiko biztanleriaren zahartzeari aurre egiteko baliabideak sendotzea, jaiotza-tasa eta familiako eta laneko bizitzak bateratu ahal ditzaten politikak mantenduz, eta adineko pertsonen behar izango dituzten osasun-zerbitzuen eskaerari erantzuteko politikarekin jarraituz.

## **2. 2004KO AURREKONTUEN FINANTZA-AURREKONTU ESPARRUA**

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2004ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorraren Lege Aurreproiektuaren esparrua osatzeko, finantza eta aurrekontu ekintzari dagozkion honako parametro hauek erabili dira:

- Eragiketa-arruntengatiko diru-sarrera %8a handitu da 2003ko ekitaldiko Aurrekontuen proiektuarekin alderatuz, aipatutako igoera batik bat hiru lurralde historikoen ekarpenen eboluzioaren emaitza da.
- Ekarpen horiek guztira 5.990,9 milioi euro zenbatzen dute.
- Europar Batasunetik datozen transferentziak 107,6 milioi eurora iristen dira, honen gehiengoa Nekazaritza Bideratu eta Bermatzeko Europako Funtsa (NBBEF) eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsatik (EGEFtik) datorrena (50,3 eta 44,8 milioi euro hurrenez hurren).
- Azkenik, kapital-eragiketengatiko diru-sarrerak %24,4an handituko dira, eta gehiengoa ere aipatutako Europar funtsetatik dator.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren 2004ko ekitaldirako Gastuen Aurrekontua 6.661,6 milioi eurokoa izango da. Hau da, 2003 urteko aurrekontuarekin alderatuz %7,7a handitu da, gure ekonomiaren hazkunde nominalaren gaintik handituz.
- Aurrekontu Bateratua, Baltzu, Elkarte eta Erakunde Publikoak barne, 7.135,2 milioi eurora iristen da.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren 2004ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrek, aurrekontu orekatua izaten jarraitzen dute, aurreko urteetako joera mantenduz agertzen duen finantzaketa beharra, hau da, eragiketa ez-finantzarioen Defizita, 469.668 eurokoa, ez baita nabarmena.
- Agertzen duen Defizit kopurua euskal BPGaren %0,00093koa besterik ez da, edo beste modu batera agertuz, Aurrekontu osoaren %0,007koa besterik ez.

- Aurreikusitako Zorpetzearen baliabidea edo Zorpetze Gordina 394,2 milioi eurokoa izango da, hau da, diru-sarrera guztiaren %5,9a.
- Bitartean, ekitaldian zehar Zor Publikoan egin beharreko amortizazioa 145,9 milioi eurokoa izango da.
- Eta azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioak 2004 urtean eragingo duen Aurrezki Publikoa (ohiko sarreretan, ohiko gastuak kenduz) 758,9 milioi eurokoa izango da.

### **3. 2004KO AURREKONTUAK EKONOMIA-HAZKUNDEARI ETA EUSKAL EKONOMIAREN LEHIAKORTASUNARI EGITEN DIZKION EKARPENAK.**

Honela, deskribatutako nazioarteko eta bertako abaguneari eutsiz, Jaurlaritzaren aurrekontu eta giza-politikaren oinarriak eta irizpideak kontutan hartuz, eta Herri Administrazioetik ekonomia-hazkundearen erritmoa bultzatzearen, hazkunde egonkorra (inbertsio publikoaren bidez) eta lehiakortasuna (Informazio Gizartea eta bat-egite teknologikoaren politiken bidez), azken finean inbertsiorako gauzatzen den ahalegina hurrengo hiru ardatzetan oinarritzen da:

- **Inbertsio Publikorako Laguntza Finantzarioaren 2003-2007rako Plana Markoak** jasotzen dituen jarduketekin jarraituz, Jaurlaritza eta foru aldundien artean adostuta urte honetan zehar hasi dira eta errepide, bide, lan-hidrauliko eta ureztalurraren azpiegiturarako zuzentzen diren inbertsioak dira. 2004 urteari dagokion inbertsioa 120 milioi eurokoa izango da, hauetatik 84,5 milioi euro Jaurlaritzak ordainduko dituenak, beraz, %70,44a.
- Guzti honi, **Ekonomia eta Gizarte Inbertsioetarako 2004-2007rako Plan Berezia** erantsi behar zaio, Euskadiko Administrazioak Naturcorp Sozietatearen pribatizazio prozesuaren ondorioz lortutako diru-sarreraren bidez hornituko den plana izango dena. Zehaztutako lau urteetako zenbatekoa guztira 233 milioi eurokoa izango da. Aurrekontuak datorren 2004 urterako aurreikusten dituen kreditu-ordainketak 65 milioi eurokoa izango dira eta gizarte, kultura, teknologia, energetiko eta ingurugirorako azpiegituretarako zuzenduko da.
- Halaber, **Euskadi Informazio Gizartean Planaren** garapenarekin jarraituko da, eta 2004 urtean plana honek izango duen aurrekontu zuzkidura 70,2 milioi eurokoa izango da, hau da, 2003 urteko aurrekontuak jasotakoa baino %9,8a gehiago.
- Zentzu berean, **2001-2004 Zientzia eta Teknologia Planak** jasotako neurriak burutuko dira, eta gaur onartutako Aurreproiektuak plan honi 94,7 milioi euro zuzentzen dio.



- Amaitzeko, 2004ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorraren Aurreproiektu Legean, Jaurlaritzaren inbertsio zuzenak, **Inbertsio errealen eta kapital-transferentzien ataletan (VI eta VII. ataletan)** guztira 759,4 milioi eurokoak izango dira. Gastu osoaren %12,3a, edo beste modu batera, 2003ko aurrekontuan baino %7,5a gehiago, ekonomiaren hazkunde nominalaren gaintik gehituz.
- Honekin batera, **VIII. Atala, Sozietateen eta Erakunde Publikoen inbertsioak** finantzatzeko dena, 255,9 milioi eurora iristen da.
- Beraz, **inbertsio kopurua guztira Euskadiko Administrazio Publikoak zuzenean eta bere erakunde bitartez gauzatuko dituenak**, 1.015,3 milioi eurokoa izango da, gaur Jaurlaritzaren Batzordeak onartu duen Aurrekontu Orokorraren Aurreproiektu Legearen Gastuaren %16,1a.
- Azpimarratzekoa da, azkenik, aipatu ditugun inbertsio batzuk ingurugiroarekin lotura duten lanak direla -aipatu direnen artean adibidez, lan hidraulikoa edo Ekonomia eta Gizarte inbertsioetarako Plana berezia 2004-2007- beti ere **2002-2020 Garapen Jasangarriaren Ingurugiro Euskal Estrategia** delakoaren aurreikuspenak betetzearren.

#### **4. 2004KO EKITALDIKO AURREKONTUAK EUSKAL GIZARTEAREN SOLIDARITATE ETA KOHESIOARI EGITEN DION EKARPENA.**

Lehen aipatu den bezala, Jaurlaritzaren inbertsiorako esfortzua indartzen den aldi berean, giza alorrean aurreikusten duen Gastua indartzen saiatzen da aberastasunaren birbanaketaren bitartez aukera-berdintasunak, solidaritatea eta giza-kohesioa bermatzearren.

Honela, berriro ere, Euskadiko Administrazio Publikoaren esfortzu ekonomiko nagusia gizarte alorreko beharrei erantzutera zuzendu da.

Gastu sozialaren atal honetan, 2004ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorren Aurreproiektu Legeak ongizatearen eta giza-integrazioaren alorretan garatu nahi duen bultzada berria adierazten du (oinarrizko errenta, gizarte eta kohesio politika laguntzak); Enpleguaren Sustapena; Familiei Laguntzeko ekintzak; Hezkuntza eta Prestakuntza, Osasuna, eta Etxebizitzen sustapena eta eskuratzearen aldeko politikak.

Zentzu honetan, aipatutako alorretan 2004 ekitaldirako **aurreikusitako gastuak, Gastu osoaren %72,54a da** (1.000 euro bakoitzetik, 725) aurreko urteko portzentaje berbera.

Horrek esan nahi du, aipatutako zuzkidurak, Gastuak orokorrean izan duen **gehikuntza** bera izango duela, hau da, %7,7a handituko direla alor hauetako zuzkidurak. Beste era batera esanda, gastu sozialerako aurreikusi diren gastuak **kopuru absolutuetan 4.832 milioi eurora iristen da**, 2003 urteko aurrekontuan baino 347 milioi euro gehiagorekin.

Zehazki, **Oinarriko Errentari** dagokion gehikuntza Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren %83an ezartzen da, honela 2006ko ekitaldirako Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren %86ra iristeko Gobernu-Egitarauan jasotako konpromisoari erantzuteko, aurrerapauso berri bat ematen da (2002an %79a; 2003an %81a).

Eta honi guztiari, **Giza Larrialdietarako Laguntzak** (GLL) atenditzeko aurreikusi diren zuzkidurak erantsi behar zaizkio, guztira 20 milioi euro izango direnak baina 25 milioi eurora zabal daitekeena.

- Halaber, enpleguaren sustapenerako neurriekin jarraituko dugu, kasu honetan duela gutxi onartu den **2003-2007 Enpleguaren Erakundearteko Planaren** arabera. Enpleguaren aldeko neurriak bultzatzeko diru kopurua, guztira 48,3 milioi eurokoa izango da, 2003ko aurrekontuetan jasotakoa baino %8,8a gehiago. Enpleguaren sustapena bultzatzeko eta bereziki gazteen eta emakumeen langabezia murriztearren.
- Bestalde, Euskadiko egitura demografikoan ematen ari den bilakaerari eta biztanleriaren zahartzeari ekiteko, 2002-2010 Osasun Planaz gainera, azpimarratzekoa da, **Seme-Alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakunde arteko Plana**, 2004 urteko aurrekontuan 54,2 milioi euroko zuzkidurarekin hornituko dena.
- Jaurlaritzak gizartearen alorrean egiten duen inbertsioaren esfortzuaren adierazlea, etxebizitza publikoen sustapenarena da. Honela, "**2002-2005 II. Vivienda-Etxebide Plan Zuzentzaileak**" datorren urterako 147,9 milioi euro aurreikusten du, aurreko urteko Aurreproiektuan baino %12,2 gehiago. Datorren urteko helburua 5.100 etxebizitza berri eraikitzea da, eta horietatik, 2.400 Etxebizitza Sailak eta bere baltzu publikoek zuzenean bere gain hartuko dituztenak.

## **5.- 2004KO AURREKONTUAK EUSKADIKO AUTOGOBENUAREN GARAPEN EZAK EKONOMIAN DUEN ERAGINARI AURRE EGITEKO DITUEN EKARPENAK.**

### **Eusko Jaurlaritzaren kargura finantzaturik daudela, oraindik ere transferitu gabe dituen Estatutuko eskumenei buruzko balioespen ekonomikoa.**

Gernikako Estatuak indarrean jasotzen duen Euskadiko autogobernuaren garapen ezak, euskal erakunde eta gizartearentzat suposatzen duen kostu ekonomikoaren analisia egiterakoan, beharrezkoa da argi eta garbi inoiz berdindu behar ez diren bi elementu ongi bereiztea.

Alde batetik, Estatuak Euskal Erkidegoari transferitzen ez dizkion Estatuaren eskumenen balorazio ekonomikoa, eta aurrekontu-ekitaldi askotan Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren bidez finantzatu direnak.

Eta bestetik, Gernikako Estatutua duela 24 urte referendum bitartez onartu zenetik, Estatuaren 37 eskumen transferitu gabe mantentzeak euskal gizarte eta erakundeentzat izan dituen ondorio ekonomikoak eta Estatuko Administrazioarekin erregularizatu gabe jarraitzen dutenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2004ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorren Lege-aurreproiektuari erantsitako eranskinak aipatutako bi alderdiak jasotzen ditu, hau honela dela, Eusko Jaurlaritzak hurrengo urterako aurrekontuan aurreikusi duen gastu zehatza, azaldutako lehenengo alderdiari dagokio.

Bigarren alderdiari dagokionez, Estatuaren Aurrekontu Orokorrek estatu-mailan transferitzeke dauden 37 eskumenen gaiei esleitzen dieten urteko kostu osoaren arabera zehaztu behar litzateke, eta Estatuko Administrazioarekin etorkizunean egin beharreko negoziazioan sartuko da, konpentsatu edo erregulatu beharreko diru-kopuru gisa, bai Estatuari ordaindu beharreko Kupoaren bidetik -dagokion kopuruaren gutxitzearekin- edo alor hauek finantzatzeko dauden beste diru-sarrera iturrietan Euskadiri dagokion parte-hartzearekin -adibidez, INEM, FOGASA, INSS edota Gizarte Segurantzako araubide ekonomikoaren kudeaketan-.

Lehen aipatu den bezala, Eusko Jaurlaritzak aurrekontu-ekitaldi askotan, eta dagozkion transferentziak jaso ez arren, indarrean dagoen Gernikako Estatutuaren aurreikuspenen arabera eskumen autonomikoak diren jarduera asko bete ditu.

Horrela, jarduera asko bete ditu honako gaiotan, hala nola, enpleguaren babesa, langabeen gizarteratzea, lanerako eta etengabeko prestakuntza, osasun nahiz gizarte laguntza espetxeetarako, enpresa-sustapena, teknologiaren modernizazioa, ETEentzako laguntza, edo ikerketa eta garapena, adibide nagusienetako batzuk aipatzearren; jarduera hauek finantza-ahalegin nabarmena eskatu dute Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen kargura, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean Estatuaren Aurrekontuak ustez egin duen ahaleginaz gain egin behar izan duen esfortzua.

Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko 2004ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorren Lege Aurreproiektuan gastua egoerak aurrekontu-zuzkidura garrantzitsuak jasotzen ditu Estatuko Administrazioak transferitzeko ukatzen dituen material eta finantza-baliabideak finantzatzeko.

**Gastu honen zenbatekoa guztira 2004ko ekitaldirako 183,3 milioi eurokoa** izango da, kontzeptu berbererako 2003ko ekitaldiko aurrekontuan aurreikusi zena baino **%8,84 gehiago**.

Zentzu honetan, gogoratu behar da 2003 urteko eranskinak 168,4 milioi euroko gastua jasotzen zuela, eta kopuru honi "Prestige" hondamendiaren ondorioei aurre egiteko Jaurlaritzak egin duen gastua erantsi behar zaiola. Abuztuaren 31an 45,7 milioi euroko gastua zehaztu zen, eta urriaren 31rako aurreikusten den gastua 55 milioi euro ingurukoa izango da.

## AURKIBIDEA

- ✓ TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA.
- ✓ ESPARRU MAKROEKONOMIKOA.
- ✓ AURREKONTU-JARRAIBIDEAK.
- ✓ FINANTZA-KONTUA.
- ✓ SARRERA ETA GASTUETAKO EGOERA: SEKZIOEN ETA FUNTZIOEN ARABERAKO SAILKAPENAK.

## TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA

- ✓ 2004ko maiatzaren 1ean Europar Batasunak kide kopuru handiagoa izango du, 25 alegia. Euskal Ekonomiarentzat arriskuak ageriko dira (egitura eta kohesio fondoengatik diru-sarrerara txikiagoak eta gure ekoizkinetan lehia handiagoa) eta abagune berriak (hazkunderako ahalmen handiko merkatu berrien irekidura).
- ✓ Badirudi Euskal Ekonomiak egonkortu duela 2002ko amaieran hasitako gorakada, eta aurreratzeko %2,2ko erritmoa lortu du 2003ko seihilekoan. Begi bistakoa da hori Europar Batasunarentzat (%0,75) erregistratukoaren gainetik dagoela, hori guztia bere egitura-ezaugarrientzat bat ere mesedegarri ez den nazioarteko inguruan gertatu delarik.

### TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA

- ✓ Nazioarteko inguruaren eboluzioa oso garrantzitsua da 2004rako euskal ekonomiaren nondik norakoak zeintzuk diren jakiteko, munduko ekonomia suspertzen den heinean, eta ziklo industrialak hobetzen eta inbertsio eskaera handitzen den neurrian.
- ✓ Hurrengo 2004ko ekitaldian Euskal Ekonomiaren kanpoko ingurua eboluzionatuko delako hipotesiek honako suposamendu ditu oinarri:
  - ◆ Munduko ekonomia 2003ko amaieran suspertzen hastea, 2004tik aurrera hobekuntza nabariaz, euro esparruan salbu, non atzeratuko dela espero den.



### TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA

- ◆ Interes tasen beheranzko joera agorturik. Gorakadarik ez da espero epe laburrean baina bai ordea europar ekonomia suspertzen den heinean.
- ◆ Euroak bere sendotasunari eustea.
- ✓ Euskal ekonomiaren neurrizko hazkundera gorabehera, enpleguak jarraituko du hazten baina erritmo txikiagoan, eta langabezi-tasa zenbatetsi da 2003an %8,0an geratuko dela eta 2004an, aldiz % 7,9an.

## ESPARRU MAKROEKONOMIKOA

### ESKARIA

Kontsumo pribatua	1.8
Kontsumo publikoa	3.2
Inberts.(kap.eraketa gordina)	3.2
<i>Barne-eskaria</i>	<i>2.4</i>
<i>Kanpo-saldoaren ekarpena</i>	<i>0.2</i>

### ESKAINTZA

Industria	2.0
Eraikuntza	2.8
Zerbitzuak	2.6

<b>BPG m.p.</b>	<b>2.6</b>
<i>BPGaren Deflaktatzailea</i>	<i>3.0</i>

<b>Enplegua (%tan)</b>	<b>1.2</b>
<b>Langabezi-tasa</b>	<b>7.9</b>

## AURREKONTU-JARRAIBIDEAK

- ✓ Aurrekontuaren Egonkortasuna.
- ✓ Inbertsio Publikoa.
- ✓ Hazkunde ekonomikoa, jasangarritasuna eta ezagutzaren gizartea.
- ✓ Kohesio ekonomiko eta soziala.
- ✓ Errealitate demografiko berria.

# AURREKONTU OROKORRAK


**2004**

## SARRERA

KONTZEPTUA	Euroak
<b>FORU ALDUNDIEN EKARPENAK</b>	
Ekarpen Orokorra	5,990,928,973
<b>EKARPENAK GUZTIRA</b>	<b>5,990,928,973</b>
<b>TRANSFERENTZIAK</b>	
Estatuaren Transf.	374,640
Euskal Erakundeen Transf.	6,010,121
Europar Egitura-Fondoak	107,615,666
<b>TRANSFERENTZIAK GUZTIRA</b>	<b>114,000,427</b>
<b>BESTELAKO BALIABIDEAK</b>	
Norbere Sarrerak	162,402,600
Zor Publikoa	394,289,000
<b>BESTELAKO BALIABIDEAK GUZTIRA</b>	<b>556,691,600</b>
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>6,661,621,000</b>

## DIRU-SARRERA EHUNEKOTAN

Ogasun eta Herri Administrazio Saila



Ekarpinak

Transferentziak

Norebere Sarrerak

Zor Publikoa


## SEKZIOEN ARABERAKO GASTUA

SEKZIOA	Euroak
LEGE BILTZARRA	21,520,218
LEHENDAKARITZA	22,110,000
LEHENDAKARIODETZA	9,035,000
OGASUN ETA HERRRI ADMINISTRAZIOA	146,402,000
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEA ETA IKERKETA	1,802,955,000
HERRIZAINGOA	488,936,000
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA	274,725,000
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIAK	197,682,000
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA	380,255,000
OSASUNA	2,144,127,000
KULTURA	203,507,000
LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMENA	103,352,000
GARRAIO ETA HERRI LANAK	187,856,000
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	142,504,000
INBERTSIO EKON.ETA SOZIALETAKO PLAN BEREZIA	65,000,000
LAN HARREMANETARAKO KONTSEILUA	2,184,000
EKONOMIA ETA GIZARTE EUSKAL KONTSEILUA	1,592,000
KOOPERATIBEN EUSKAL KONTSEILUA	730,000
HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA	6,190,163
ZOR PUBLIKOA	232,692,000
ERKUNDEEN BALIABIDEAK ETA KONPROMISOAK	136,637,204
HAINBAT SAIL	91,629,415
<b>GUZTIRA</b>	<b>6,661,621,000</b>

**Aurrekontu  
Bateratua:: 7135,2  
Milo euro**


## SEKZIOEN ARABERAKO GASTUA

Ogasun eta Herri Administrazio Saila



## SEKZIOEN ARABERAKO GASTUA EHUNEKOTAN


Ogasun eta Herri Administrazio Saila





## FUNTZIOEN ARABERAKO SAILKAPENA

Ogasun eta Herri Administrazio Saila




- Zor Publikoa
- Zerbitzu Orokorrak
- Herri Babesa eta Herritarren Segurtasuna
- Gastu soziala
- Ondasun Publikoen Ekoizpena
- Arautze Ekonomiko Orokorra
- Ekoizpen-Sektoreen Arautze Ekonomikoa
- Beste Administrazioekiko Finantza Harrem.

# AURREKONTU OROKORRAK

**2004**

GASTUA 1.000 EUROKO


Ogasun eta Herri Administrazio Saila



- Gastu Soziala
- Ondasun Publikoen Ekoizpena
- Herri Babesa eta Herritarren Segurtasuna
- Zor Publikoa
- Zerbitzu Orokorrak
- Ekoizpen-Sektoreen Arautze Ekonomikoa
- Besteak

## BIZTANLE BAKOITZEKO GASTUA EUROTAN

Ogasun eta Herri Administrazio Saila





# AURREKONTU OROKORRAK


2004

Ogasun eta Herri Administrazio Saila

OGASUN ETA  
HERRI ADMINISTRAZIOA

HACIENDA Y  
ADMINISTRACION PUBLICA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO